

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2008	R23/2011	2011/11/04	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ

R 23/2011 ebazpena

22/2008 espedientea

Gasteizen, 2011ko azaroaren 4an, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada (lehendakaria) eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese (kideak) kideekin, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurka planteatutako gatazkari buruzkoa; administrazio bietatik zein den eskumenduna (ENTITATEA 1) S.A.U. (IFK: A-----) zergadunak, PFEZaren kontura, 2001eko apiriletik 2005eko otsailera, (izena eta abizenak 1) eta (izena eta abizenak 2) langileei egindako laneko irabazien atxikipenak biltzeko.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu zuen 2008ko maiatzaren 9ko idatziaren bidez; idatzi horri 2008ko maiatzaren 12an eman zitzaion sarrera Arbitraje Batzordean.

2. Espedientetik, honako aurrekari hauek ondorioztatzen dira:

1. (ENTITATEA 1), S.A.U. (IFK: A-58141326) entitateak (izena eta abizenak 1) eta (izena eta abizenak 2) langileei 2001eko apiriletik 2005eko otsailera ordaindutako lan pertsonalaren etekinen ondoriozko PFEZaren konturako atxikipenak ordaindu zituen, guztira 171.273,04 euro, Estatuko Administrazioan, Kataluniako AEATen.
2. 2005eko maiatzaren 4an, AEATen, 171.273,04 euroko sarrera okerrak eta berandutza interesak itzultzeko eskaera bat egin zuen, argudiatuz zenbateko hori Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu behar zela, langile horiek entitatearen Donostiako bulegoei atxikita zeudelako, eta akatsez ordaindu zitzaiola estatuko Administrazioari.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2008	R23/2011	2011/11/04	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ

3. 2005eko irailaren 6an, AEATEk sarrera okerrak itzultzeko eskaera ezetsi egin zuen, argudiatuz bi langileen lan kontratuetan adierazten zela biek Bartzelonako lantokian eman behar zituztela zerbitzuak.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun Ikuskaritzak 2006ko otsailaren 9an hasi zituen (ENTITATEA 1) S.A.U. zergadunarekin egiaztapen jarduerak eta 2006ko maiatzaren 18ko aktarekin amaitu ziren; bertan, zehaztu zen (izena eta abizenak 1) eta (izena eta abizenak 2) langileei egindako lanaren etekinen atxikipenak, 2001eko apiriletik 2005eko otsailera bitartekoak –biak barne–, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Ogasunean egin behar zirela, Ekonomia Itunaren 7.Bat a) artikuluan xedatutakoaren arabera, biek euskal lurraldean ematen zutelako zerbitzua eta lurralde historiko horretan kokatutako lantokiari atxikita zeudelako.

Aktaren ondorioak babesteko argudio gisa aipatzen ziren honako hauek: a) zergadunak, 2005eko apirilaren 26an Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztutako idatzian, adierazten zuen bi langile atxikita zituela Donostiako lantokian; b) entitate hori Gipuzkoan dago 1993az geroztik; c) Oyarbide andrea Gipuzkoan egoitza zabaldu zenean kontratatu zen, horren arduradun izan zedin; d) (izena eta abizenak 1) andrearen kontratazioa, hilabete batzuk geroago egin zen arren, Gipuzkoan egoitza zabaltzearen ondorio zen; e) bi langileak beti Gipuzkoako egoitzari atxikita egon dira; lan kontratuetan Bartzelonako lantokiari atxikita egotea inertziaren ondorio da, sozietatearen egoitza nagusia Bartzelonan dagoelako; zerbitzuak hainbat lekutan ematen dituzte eta burutzen dituzten programen arabera da, Gipuzkoako lanak beste probintzi abatzuetakoekin tartekatzen dituzte; f) bi langileak gipuzkoan bizi dira eta 1996 baino lehen ere Gipuzkoan bizi ziren, eta han betetzen dituzte beren zerga betebeharrak.

Akta horren ondorioz, likidazioa egin zitzaion (ENTITATEA 1) S.A.U. entitateari, 201.361,56 eurokoa, Gipuzkoako Foru Ogasunean ordaindu ez ziren atxikipenen zenbatekoa (171.273,04 euro) eta berandutza interesak (30.042,13 euro) biltzen zituena.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2008	R23/2011	2011/11/04	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ

5. Gipuzkoako Foru Ogasunaren 2008ko martxoaren 13ko idatziaren bidez –AEATen martxoaren 14ko sarrera erregistroa du–, eskatu zen azken hori inhibitzeko eta 201.361,56 euro igortzeko.
 6. 2007ko apirilaren 17an, AEATEk Gipuzkoako Foru Aldundiari erantzun zion bere eskumenekotzat jotzen zuen egintza izapidetutako eta zergadunari ezetsitako espediente bati zegokiola eta zergadunak ez zuela errekurritu, eta, horrez gain, prozedura hori alde batera utzita ere, Gipuzkoako Foru Ogasunak ez zuela zuzenean beste prozedurarik hasi AEATen eta Foru Ogasunen arteko akordioetan eta lantaldeetan aurreikusitakoaren arabera.
 7. 2008ko uztailaren 1ean, AEATEko Kataluniako Ordezkaritza Bereziak zerga sarreraren itzulketa ezesteko erabakia berresteko txostena eman zuen, oinarri hartuta entitateak ez zuela egiaztatu langileek zerbitzuak Gipuzkoako foru lurraldean ematen zituztenik, ez han bakarrik behintzat; haien lan kontratuetan aurkakoa ageri da.
3. 2008ko irailaren 12ko bileran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen gatazka hau izapidetzeko onartzea eta Estatuko Administrazioari jakinaraztea.
4. 2008ko urriaren 30ean, AEATEk idatzi bat igorri zion Arbitraje Batzordeari –2008ko azaroaren 3ko sarrera erregistroa–, bertan eskatzen zuen gatazka ez onartzeko, argudiatuta (ENTITATEA 1) S.A.U.k atxikipenen inguruan sarrera okerrak itzultzeko egindako eskaera ezesteko AEATEk emandako erabakiak Gipuzkoako Foru Ogasunari 2005eko irailaren 23an jakinarazi zitzaizkiola, eta ez zela errekurtsorik aurkeztu eta jakinarazpen hura egin eta Arbitraje Batzordean gatazka planteatu zen arteko ia hiru urteko epean ez zela eskumen gatazkarik planteatu jurisdikzio eskudunaren aurrean; jurisdikzio hori, Konstituzio Auzitegiak 26/2008 epaian berriki adierazi duen moduan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa zen, orduan Arbitraje Batzordea ez zegoelako eratua. Halaber, eskatzen zen Gipuzkoako Foru Ogasunaren uzia subsidiarioki ezesteko, ez dituelako frogatu oinarri hartzen dituen egitateak.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2008	R23/2011	2011/11/04	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ

5. Espedientea amaitu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, AEATi eta (ENTITATEA 1) SAUri helarazi ondoren, lehenengoak alegazioak aurkeztu zituen 2009ko martxoaren 18ko idatziaren bidez –martxoaren 23ko sarrera erregistroa–; bigarrenak 2009ko martxoaren 16ko idatziaren bidez –martxoaren 18ko sarrera erregistroa–; eta entitate interesdunak ez zuen alegaziorik egin.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Arbitraje Batzordearen erabakiaren mende jarritako auzia da zein administrazio den eskumenduna (ENTITATEA 1) S.A.U. (IFK: A-----) zergadunak, PFEZaren kontura, 2001eko apiriletik 2005eko otsailera, (izena eta abizenak 1) eta (izena eta abizenak 2) langileei egindako laneko irabazien atxikipenak biltzeko.

2. Hala eta guztiz ere, auzi horri heldu aurretik, AEATEk ez onartzeko arrazoi gisa planteatutako alegazioa aztertu behar da, alegia, Arbitraje Batzorderik ez zegoenez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan gatazkarik ez aurkezteagatik garaiz kanpkoa dela dioen alegazioa.

Argudio hori hainbatetan erabili du AEATEk Arbitraje Batzordean izapidetutako beste espediente batzuetan, eta espediente horietariko batzuen erabakiak jada jakinarazi zaizkio alderdi horri eta administrazio bidean irmoak dira.

Egia da Arbitraje Batzordearen Araudiak ez duela erregimen iragankor bat arautzen Arbitraje Batzordeko kideak izendatu aurreko eta batzorde hori eratu aurretik planteatutako gatazketarako –inplizituki suposatzen du onartzea Arbitraje Batzorderik gabe ere planteatutako litezkeela–, baina, abenduaren 22ko 2/2008 ebazpenean adierazi genuen moduan, AEATEk aztertzen ari garen gatazkan planteatutako antzeko argudioei aurka eginda, Arbitraje Batzordearen Araudian ez dagoenez arau iragankorrik, ez dago arrazoirik adierazitako dataren bat izateko gatazka planteatzeko epea kontatzen hasteko eguna. Aldiz, egokia dirudi babestea araudi horretako epe sistema aplikatzeko premisa dela Arbitraje Batzordea bere funtzioen jardunean egotea benetan. Izan ere, ez litzateke logikoa izango Ekonomia Itunean gatazkek ebazteko aurreikusitako modu gisa Arbitraje Batzordera jotzeko aukera organo horrek benetan auzi horiek aztertzeko aukera izan

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2008	R23/2011	2011/11/04	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ

aurretik iraungitzea. Ondorio hori babesten du pro actione printzipioak ere. Horren guztiaren arabera, Arbitraje Batzordearen irizpidea izan da benetan eratu zenean –2008ko apirilaren 4a– ebazteke zeuden gatazkak izapidera onartzea, eta horien artean dago Arbitraje Batzordea aztertzen ari den hau. Benetan, ez dira gatazka berriak, Arbitraje Batzordearen Araudian ezarritako hilabeteko epea bete beharko luketenak, aspaldi sortutako gatazkak baizik (zenbait kasutan, duela hainbat urte, erabaki honetan aztertzen dena kasu), orain bide honetara jo dutenak. Edonola ere, epe hori ezin izango litzaieke atzeraeraginez aplikatu Arbitraje Batzordearen Araudia argitaratu aurretik hasitako gatazkei, segurtasun juridikoa kaltetu gabe behintzat. Arrazonamendu horien arabera, AEATEk garaiz kanpokotasunaren inguruan egindako alegazioa ezetsi behar da, eta doktrina hori bera da gatazka honetan erabiltzen duguna, eta gure jarrera ezin da Arbitraje Batzordeak bere egiten dituen baina AEATEk desberdin interpretatzen dituen jurisprudentziako aipamenekin aldatu.

Gaineratu behar da Arbitraje Batzordearen jarrera hau Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak berretsi duela 2010eko apirilaren 22ko –0147/2009 errekurtsioa– eta 2011ko apirilaren 13ko –540/2008– epaietan. Bigarrenak aurrekoa aipatzen du eta baieztatzen du bat datorrela Arbitraje Batzordeak eratu zenean ebazteke zeuden gatazken inguruan hartu duen irizpidearekin, benetan ez direlako gatazka berriak, araudian ezarritako hilabeteko epea aplikatu beharko litzaiekeenak, baizik eta aurrez sortutako gatazkak, honako hau bezala. Auzi hori, beraz, guztiz erabakita geratzen da.

3. Gaiaren hondoari dagokionez, Gipuzkoako Foru Ogasunak, gatazka planteatzeko idatzian, bere uziaren xede diren lanaren etekinengatiko atxikipenak bildu eta kobratzeko eskumena berea dela berresteko argudioak azaltzen ditu, alegia, entitateak atxikipenak egin zizkien langileak Gipuzkoan lan egiten zutela, lurralde historiko horretan kokatutako lantokiei atxikita zeudelako. Ekonomia Itunak, 7.Bat artikuluan xedatzen du “Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz: a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak. Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2008	R23/2011	2011/11/04	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ

direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago.”

4. Baina Gipuzkoako Foru Ogasunak ez du froga ahalegin txikiena ere egin egiaztatzeko eztabaidan dauden atxikipenei dagozkien langileak benetan Gipuzkoan kokatutako lantoki bati atxikita zeudela.

5. Bere uzia babesteko aurkeztutako dokumentu bakarra da 2005eko maiatzaren 18ko Ikuskaritza Akta; horrekin batera zergadunak berak aurkeztutako langileen eta atxikipenen zerrenda dago, eta honako hau aipatzen da: a) zergadunak berak Foru Ogasunean aurkeztutako idatzia, non aitortzen duen bi langileak Donostiako lantokiari atxikita daudela –idatzi hori ez da aurkeztu–; eta b) 2005eko azaroaren 23an sinatutako diligentzia bat, non entitate atxikitzailearen ordezkariak aitortuko lituzkeen bere uziaren froga gisa aipatutako egitate guztiak –baina dokumentu hori ere ez da aurkeztu–.

6. Aldiz, espedientean badaude entitate atxikitzaileak eta haren langileek sinatutako bi lan kontratuak eta, horietan bietan, ageri da, inolako zalantzarik gabe, langileek Bartzelonako lantokian emango dituztela zerbitzuak.

7. Egoera horretan, Arbitraje Batzordeak ondorioztatu behar du Gipuzkoako Foru Ogasunak bere uzia froga oinarri nahikorik gabe formulatu duela. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako froga bakarra zergadunaren aitopenak jasotzen dituen ikuskaritza akta da eta, Arbitraje Batzordearen iritziz, aitopen horiek ez dira nahikoak entitate atxikitzaileak eta langileek sinatutako lan kontratuen eduki argia ezeztatzeko.

Beste frogarik gabe ezin da zalantzan jarri (izena eta abizenak 1) andrea eta (izena eta abizenak 2) andrea –horien atxikipenen ingurukoa da gatazka– (ENTITATEA 1) SAUren Bartzelonako Santa Elionor 3ko lantokiari atxikita zeudela.

8. Horren arabera, ez da erabakirik eman behar berandutza interesak eta AEATen ordaindutako atxikipenak itzultzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren uziaren kontra AEATEk planteatutako auziaren inguruan.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
22/2008	R23/2011	2011/11/04	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

Aitortzea Estatuko Zerga Administrazioak duela eskumena (ENTITATEA 1) S.A.U. (IFK: A- ----) zergadunak, PFEZaren kontura, 2001eko apiriletik 2005eko otsailera, (izena eta abizenak 1) eta (izena eta abizenak 2) langileei egindako laneko irabazien atxikipenak biltzeko.